

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DURRUMA DONEMILIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Behin betiko onestea auzolanen ordenantzaren aldaketa

Kontzeju honek, 2024ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion auzolanen ordenantza aldatzeko espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onesten da. Horrenbestez, osorik argitaratzen da, indarrean jartzeko, Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Horren arabera, behin betiko erabakiak, kategoria horretara automatikoki aldatzen diren behin-behinekoak barne, eta ordenantzen edo haien aldaketen testu integratua ALHAOn argitaratu beharko dira, eta ez dira indarrean jarriko argitalpen hori egin arte.

Ordenantzaren "4. Libre geratzea" atala aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

"4. Libre geratzea: Auzolanen parte hartzera behartuta dauden auzotarrak lan horietatik libre geratu ahal izango dira, baldin eta beraien ordean lan hori egiteko gai den beste bat joaten bada, edo auzolan egun bakoitzeko 60 euro ordaintzen badu; zenbateko hori urtero igo daiteke, kontzejuak erabakitzen duenaren arabera."

Libre geratzea arauz egin dadin, interesdunak, gutxienez, auzolana gertatu baino 24 ordu lehenago jakinaraziko dio lehendakariari. Hala egin ezean, auzolanera huts egin duela esan nahiko du eta hala zehatuko da."

Ordenantza honen aldaketa ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Durruma, 2024ko apirilaren 9a

*Lehendakaria*  
**EDUARDO ASURMENDI LECEA**